

## **2002ko ABENDUAREN 30eko BILKURA NAGUSIA**

Lizartzan, bi mila eta biko abenduaren hogeita hamarreen, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Lurdes Altuna Arritegi, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez, Xabier Balerdi Urdampilleta; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

### **2.- APEZTEGIA ETXEAREN SALMENTA ENKANTE PUBLIKOAN EGITEKO BALDINTZA PLEGUEN ONARPENA**

Alkateak, hitza harturik dio:

Abenduaren 14an amaitu zela, Apeztegia Etxearen Lehiaketa Publikoan eskaintzak aurkezteko epea, eta ez dela inor agertu.

Hori dela eta, berriro jendaurrean jartzea proposatu du.

## **LIZARTZAKO UDALERRIKO ELIZONDO AUZOAN KOKATZEN DEN APEZTEGIA ETXEA LEHIAKETA PUBLIKO BIDEZ BESTERENTZEKO BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA**

### **I.- KONTRATUAREN XEDEA**

Kontratuaren xedea LEHIAKETA PUBLIKO bidez udal jabetzako ondasun bat besterentzea da, lehen etxebizitzarako erabiltzeko, eta plegu hauetan zehaztutakoari jarraiki. Ondasuna honako hau da:

## APEZTEGIA ETXEA.

Titulua.- Sekuladanikoa. Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, horrela: 1443. Liburukia, Lizartzako 24. Liburua, 61. Folioa, 1184 Finka, 1. Inskripzioa.

Besterentzearen xedeak bi ikuspegi ditu. Bata, herrian dauden eraikuntzak berritzearena da, eraikuntza hauen aintzinako egitura eta osaketa gordeaz. Horretarako lehiakideak, Udalak ezarritako irizpideen barruan, eraberritzeko proiektua aurkeztu beharko du. Bestea Lizartzako herriak jasaten duen biztanleriaren beherakada gelditzea, horretarako eraikinaren hartzaileak, lehen etxebizitzarako erabili beharko du.

## II.- ENKANTERAKO TASA

Enkanterako tasa HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI Euro eta LAUROGEITA HAMAZAZPI Zentimo (73.289,97,-) Eurotako da. Tasa hori gorantz hobetu ahal izango da.

## III.- JABETZA ESKUALDATZEA

Lizartzako Udalak etxe horren jabetza eta edukitza eskualdatzeko konpromisoa hartzen du. Horretarako, eskritura publikoa egingo da Notarioaren aurrean, ondasuna behin betiko esleitzen denetik hiru hilabeteko epean. Eskritura egiteko, esleipendunak agertu egin beharko du zehaztuko den lekuan, egunean eta orduan.

## IV.- BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO BERMEA

Ez dago bermerik.

## V.- GASTUAK

Esleipendunak enkanteari dagozkion iragarkiak ordaindu beharko ditu, bai eta enkantearen xede den eraikina berari eskualdatzeko ordaindu beharreko zergak ere.

#### VI.- BALDINTZA BEREZIAK

- 1.- Esleipendunak, udalak ezarritako irizpideen barruan, Apeztegia Etxearen Eraberritze Proiektua aurkeztu beharko du, proiektuaren gastuak bere kontura izango direlarik.
- 2.- Esleipendunak, Udalak onartutako proiektuaren obrak bere kargu hartu beharko ditu.
- 3.- Esleipendunak eraikina etxebizitzarako erabiliko du, eta bere ohiko etxebizitza izango da.

#### VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZAK ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEKO IRAGARKIA BIAK BATERA JARRIKO DIRA JENDAURREAN

Apirilaren 18ko 781/1986 ELDko 122 artikulua 2. Paragrafoak ezarritakoari jarraiki, Administrazio Baldintza Zehatzak eta proposamenak aurkezteko iragarkia ekintza bakarrean jarriko dira jendaurrean. Pleguaren aurkako erreklamazioak aurkezteko, 8 laneguneko epea izango da iragarkia argitaratzen den egunetik.

#### VII.- ESKAERAK ETA AGIRIAK AURKEZTEA

Epea eta lekua: Proposamenak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, eskura. Astelehenetik ostiralera bitartean egin ahal izango da 8:00tatik 14,00etara, eta iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeita sei (26) eguneko epean.

Formalitateak: Proposamenak epe barruan aurkeztu beharko dira **2 kartazal itxitan**. Kartazalen kanpoan honakoa idatziko da:

## **APEZTEGIA ETXEA BESTERENTZEKO LEHIAKETA PUBLIKOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA**

**1.- kartazala**, honako agiriak izango ditu:

- a) Nortasun Agiri Nazionala edo horren fotokopia egiaztatua.
- b) Estatuko Kontratazio Erregelamendu Orokorreko 23. Artikuluan eta horri buruz ezar daitezkeen bestelako xedapenetan adierazitako ezgaitasun eta bateraezintasun arrazoen barruan ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena.
- c) Beste norbaiten izenean jarduten bada, ahalorde eskritura. Ahalordea legeztatua egongo da, eta abokatu batek (irakurtzeko moduko firma) edo Udaleko Idazkariak askietsiko du.
- d) Merkataritza elkarte bat bada, elkartearen eratze eskritura Merkataritza Erregistroan inskribatuta. Enpresa elkarketa bada, elkarketa hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.
- e) Zerga betebeharretan edo Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean dagoela adierazten duen aitortpena, bere ardurapean. Aitortpena agintari judizial, administrazio agintari, notario edo horretarako gaitutako elkarte profesional batean egingo da.

**2. kartazala**, eskaintza ekonomikoa izango du, honako ereduaren arabera:

### **Proposamen eredia**

“Jn./And.: ....., adinez nagusia. Helbidea: .....,  
NAN zk.: ..... Bere izenean jarduten du, eta Gipuzkoako Aldizkari

Ofizialeko .....ko ..... zk.an iragarritako lehiaketaren berri izan dut. Honen bidez lehiaketan parte hartzen du, eta Udalaren jabetzako APEZTEGIA ETXEA ondoren adierazten den prezioan erosteko konpromisoa hartu. Administrazio pleguak osotasunean onartzen ditut, eta horren arabera egiten dut eskaintza:

Eskainitako prezioa: ..... (hitzez eta zenbakiz idatzita) .....  
pezeta.

Halaber, Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko 20. Artikuluan ezarritako kontratatzeke debekuen barruan ez nagoela adierazten dut.

Lekua, data eta sinadura”

#### VIII.- PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak Udaletxean irekiko dira, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo laneguneko 13:00etan. Hala ere, egun hori larunbata bada, hurrengo egunera arte atzeratuko da.

Kontratazio Mahaiak honako kideak izango ditu:

- Mahai burua: Alkate-Lehendakaria edo horrek bere ordezkari izendatzen duena.
- Bokala: Ogasuneko Zinegotzia.
- Idazkaria: Udaleko Kontuhartzailea edo horrek bere ordezkari izendatzen duena.

#### IX.- ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN ZERRENDA

Eskaeretan adierazitakoa egia dela ziurtatzeko beharrezko diren egiaztapenak egin ondoren, Alkate-Lehendakariak, Kontratazio Mahaiaren proposamenaren arabera, onartutakoaren eta baztertutakoaren behin-behineko zerrenda erabakiko du.

Zerrendak udaletxeko iragarki oholean jarriko dira jendaurrean. Eskaerak aurkeztu dituztenek erreklamazioa egin ahal izango dute behin-behineko zerrendak onartzen dituen administrazio erabakiaren aurka. Horretarako, hamabost egun izango dituzte jendaurrean egoteko epea amaitzen den egunaren hurrengo egunetik.

Erreklamazioak erabaki ondoren, Alkate-Lehendakariak enkantean onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak erabakiko ditu. Zerrenda horiek aurreko paragrafoan adierazitako era berean jarriko dira jendaurrean.

#### X.- KONTRATUA ESLEITZEA

Kontratazio Mahaiak hautatuko du etxebizitzaren esleipenduna. Hori Udaletxeko Areto Nagusian egingo da, horretarako ezarriko den egunean.

Kontratazio Mahaiak Udalbatzari esleipen proposamena igorriko dio. Eta horrek, 30 laneguneko epean, behin behineko esleipena egingo du.

#### XI.- KONTRATUAREN IZAERA

Plegu hauen xede den salerosketa kontratuak izaera pribatua du, eta honako legeen bidez arautuko da:

- a) Kontratua prestatzeari eta esleitzeari dagokionean Administrazio Baldintza Berezien Plegu hauek arautuko dute, eta hemen aurreikusita ez dagoen guztian honakoek: 7/85 Legea, Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzekoa; 1986ko ekainaren 13ko Legea, Toki Korporazioen Ondasunei buruzkoa; eta 2/2000 Administrazio Publikoen Kontratuaren buruzkoa, ekainak 16ko Legea eta 1098/2001 Erregelamendua, Urriaren 2ko Errege Dekretuak onartua.
- b) Kontratuaren ondorioei eta amaitzeari dagokionean Zuzenbide Pribatuko arauak.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

**3.- LIZARTZAKO GIZARTE-GUNEKO JUBILATUEN TABERNA ETA JANGELA-ERABILPEN ANITZEKO GELAREN KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN LEHIAKETAKO BALDINTZA ERREGULATZAILEEN PLEGUA**

Alkateak hitza harturik, dio:

2001eko Otsailaren 1ean, Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera anitzeko lokalaren adjudikazioko Administrazio Kontratuaren arabera, MIKEL SALVADOR SARASOLA Jauna izan zen, lehiaketaren adjudikatzailea.

2002ko Abenduaren 12an, MIKEL SALVADOR SARASOLA Jaunak, Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera uzteko asmoa, eta hori lehenbaitlehen gauzatzeko asmoa agertu du.

Guzti hori kontutan hartuaz, Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilpen Anitzeko Gelaren Kontzesio Administrazioaren Lehiaketako Baldintzak onartu eta jendaurrean jartzea proposatu du.

**LIZARTZAKO GIZARTE-GUNEKO JUBILATUEN TABERNA ETA JANGELA-ERABILPEN ANITZEKO GELAREN KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN LEHIAKETAKO BALDINTZA ERREGULATZAILEEN PLEGUA**

**1. art.- Kontzesioaren xedea.**

Lizartzako Udala gizarte-gunearen instalazioen jabea da, eta lehiaketa publikoa irekitzen du kontzesio administrazioa emateko asmoz, bertako taberna eta jangela-erabilpen anitzeko gelaren erabilera eta ondorioz ustiapena baimentzeko kontzesionatzaileari.

**2. art.-** Kontzesionatzailearen betebeharrak.

Gizarte-gunearen eta jangela-erabilpen anitzeko gelako ustiapenaren zerbitzuak, ondorengo betebeharrak dakar:

- a) Jubilatuentzako taberna eta jangelaren zerbitzurako erabiliko diren instalazio eta lanabesen garbiketa.
- b) Gizarte-gunearen gainontzeko instalazioen eta mobiliarioaren garbiketak, zehazki, bainu jeriatrikoa, egon gela, komunak, biltegia eta aldagelak.
- c) Mahaira eta egon-gelara bere kabuz kontsumizioak eraman ezin dituzten jubilatuei laguntza eman.
- d) Jangelaren uztea otorduko orduetatik kanpo iharduera anitzen erabilpenerako.
- e) Gizarte-guneko bainu jeriatrikoko eta egon gelako giltzen ardura.

**3. art.-** Behin behineko adjudikazioa egiten denetik urte bateko kontzesioko epea izango du, urtero luzatu ahal izango delarik bost urteko mugarekin, edozein alde hilabete aurretik ez badu denuntziatzen.

**4. art.-** Esleidunak, lehen urteari dagokion ustiapenaren ondorioz, Lizartzako udalari EHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI ETA HOGEI (157,20,-) eurotako hileroko kanona ordainduko dio, B.E.Z.a barne delarik. Diru kopuru hau urtero errebisatuko da, urteko K.P.I. aplikatuz.

**5. art.-** Ordutegia: Azaroatik Apirila bitarte: goizeko 10etatik gaueko 10k arte; Maiatzatik Urria bitarte, goizeko 10etatik gaueko 11k arte gutxienez, publikoari irekita egongo da, Eusko Jaurlaritzatik onartzen duen legediaren arabera ordutegi hau zabaldu daitekalarik. Asteguneko egun



batean, hau da, asteartea, jai egitea izango da. Oporrak abuztuko hiru astetan egin ahal izango dira.

- 6. art.-** Esleidunak berak zuzenean bete beharko ditu kontzesio honetan aipatzen diren lanak. Ez du inolako lan harremanik izango udalarekin, beste hainbeste dagokio kontrata lezakeen langileriarekin, honen Gizarte Segurantzako afiliazioa esleidunaren kontura izango bait da.

Esleidunak alta eman beharko du Gizarte Segurantzako autonomoetako erregimen berezian, iharduera ekonomikoetako zergan, eta dagozkion beste zerga edo tasetan.

Zilegi izango da titularra ordezkatzeari baldin oporregatik edo beste arrazoi batzuegatik, baina garaiz jakinarazi beharko zaio hori Udalari.

- 7. art.-** Bi prezio tarifa aplikatuko dira, eta denbora guztian ikusgai azalduko dira.

a) Bata, Lizartzako 65 urtetik gorakoei aplikatuko zaie tarifa murriztua, eta honen prezioak Udala eta esleidunaren artean adostuko dira kontzesioa eman ondoren.

b) Bestea, gainontzeko publikoari aplikatuko zaio, eta Lizartzako beste tabernetako antzekoak izango dira.

- 8. art.-** Ondorengo gastuak esleidunaren kontura izango dira:

- Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna, Jangela-Erabilpen Anitzeko Gelako zerbitzurako ontzien konponketa eta berriketa, aparailu elektrodomestiko eta beste batzuen mantenimendu eta konponketa.
- Garbitasun, argindar, ura, zaborrak eta estolderi gastuak.
- Bi urtetik behin, taberna eta jangela-Erabilpen Anitzeko gelaren pintaketa.

**9. art.-** Esleiduna behartuta egongo da kontzesioak dirauen denboran, zerbitzu eta garbitasun egoki bat ematen instalazio guztietan, udalak honi dagokionez ezartzen dituen arauak betez. Baita ere, establezimendu publikoetarako ematen diren osasun janariei buruzko xedapen eta arauak bete beharko ditu.

**10. art.-** Taberna eta Jangela-Erabilpen Anitzeko gelaren funtzionamendua, barruko ordena, zabaldu eta ixteko ordutegia, garbitasuna eta lokal eta zerbitzuen osasun baldintzei buruz udalak zaintze eta kontrol lanak egin ahal izango ditu, eta esleidunari informazioa edo behar duen dokumentazioa eskatu ahal izango dio, iharduerak sortzen dituen edozein motako beharrak betetzen diren edo ez akreditatzeko.

Nolabaiteko akatsik antzemango balitz behar den akta idatziko litzateke, eta lehen aldi idatziz oharterazioko litzaioke eta leudekeen kalteak ordaintzera behartuko litzateke, eta bigarren aldi kontratua hautsiko litzateke, esleidunak inolako eskubiderik gabe lokaletik alde egin beharko lukeelarik bertako tresnak utzirik, honek ez liokelarik salbuetsiko sortu dituen erantzunkizunei aurre egiteko.

Udalak erabakiko balu Taberna eta Jangela-Erabilpen Anitzeko gela behin behingoz edo behin betirako ixtea, esleidunak ez luke eskubiderik izango inongo motatako indemnitazio edo konpentsaziorik jasotzeko.

Lokala utziko ez balu, sortu daitezkeen erantzunkizun penaletik aparte, udalak edozein organo erabiliz, zigor edo premiamendu neurriak erabili ahal izango ditu, agindutakoa bete dadin.

**11. art.-** Esleidunak ezingo du hirugarren bati lagapena utzi udalaren baimenik gabe.

**12. art.-** Esleidunak ezingo ditu obrak egin Udalaren baimenik gabe.

**13. art.-** Esleiduna erantzule izango da pertsona edo gauzei sortu daitezkeen edozein kalteengatik nahiz eta iharduera udalaren jabego edo menpean egon.

**14. art.-** Udala behartuta dago lokala, bere instalazio eta haltzariak aseguratzeraz egokiak diren kopuruetan.

**15. art.-** Udalak kontratua salatu eta indarrrik gabe utzi lezake, plegu honetan zehazten diren baldintzetatik edozein bete gabe utziko balitz.

Era berean, eska liezaioke esleidunari kontratazio honek sortarazten dituen ekonomi arloko obligazioen ordainketak eguneratuak izatea, ordaintzeke dauden zorrak dagozkien gainkargu eta guzti, premiamendu bidetik kobratu ahal izango direlarik.

**16. art.-** Lagapenerako zehaztu den denbora bukatutakoan amaituko da kontratua ere, eta esleiduna behartuta geratuko da alde egiteko erabili dituen lokalak eta hauei atxekitutako ondasunak utsik eta aske uztera, udala ahalmen duta egongo delarik usketa erabaki eta egiteko.

Kontratoaren luzapenik balego, hau ere bukatu ahal izango da esleidunak errenunziatzen duelako, udalari idatzi bat zuzenduz hiru hilabeteko aurrerapenarekin.

**17. art.-** Udalak argituko ditu baldintza plegu hauek aplikatzerakoan sortu daitezkeen zalantza guztiak eta plegu honetan aurrikusten ez diren edozein zalantzari dagokionean, udaletako kontratazio eta ondasunen erreglamenduak dituzten ebazpenen bitartez eta indarrean dauden beste xedapen batzuren bitartez arautuko da kontzesioa.

**18. art.-** Plegu honetan aurrikusten den lehiaketaren bitartez gauzatuko da adierazi den zerbitzu horren eleispena, eta horretan aurrikusi gabe dagoen oroako udaletako kontratazio erreglamendurako 40. artikulua eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenak aginduko dute.

**19. art.-** Baldintza plegua eta beste aurrekinak udal bulegoetan aztertu ahal izango dira.

**20. art.-** Lizitazioak puntu hauek hartuko ditu kontutan:

- a) Lizartzan erroldaturik egotea baloratu egingo da, herrikoari lehentasuna emanez.
- b) Euskaraz jakitea.
- c) Langabezian egotea baloratuko da.
- d) Famili kargak kontutan izango dira.
- e) Esperientzia profesionala antzeko lanpostuan izatea baloratuko da.

**21. art.-** Behin behineko garantiarik ez dute aurkezteko esleidunek.

**22. art.-** Behin betiko berma, SEIEHUN ETA BAT Euro BAT Zentimo (601,01,-) izango da. Berma hori udaleko kontratazio erreglamenduak aurrikusten duen bezala eratu beharko du esleidunak, lagapenaren oharterazpena egin eta hurrengo hamar egunetako epean udaleko kontuhartzaitzara eraman beharko duelarik berma eratu duela egiaztatzeko agiria. Berma horren bitartez erantzun beharko dio kontratu honetako obligazioak betetzeari.

Udaleko kontratazioa erreglamenduko arauen eta horiek alda zitzaketen ondorengo xedapenen arabera itzuliko da behin betiko berma hori.

**23. art.-** Proposamenak jarrain azaltzen den eredia bete beharko dute:

.....jaun/anderea, .....bizi dena, N.A.  
zenbakia ....., ahalmen juridiko eta ihardutekoaren jabe

delarik, eta jakin duenez Lizartzako Udalak deialdia egin duela Gizarte-gunearen taberna eta jatetxeko zerbitzua erabili eta ustiatzeko lagapen administratiboari dagokion esleipena ematearren, horretarako onartu den baldintza plegua ere ezaguturik, aipatu lehiaketan parte hartu nahi du, eta erabilpen eta ustiaketa hori aipatutako baldintzen arabera egitera behartzen du bere burua, hortik eta zuzenean edo subsidiarioki aplikatu daitezkeen indarrean dauden arautetaik sortzen diren betebeharrak eta erantzunkizun guztiak onarturik.

Lekua, data eta sinadura.

**24. art.-** Lehiaketan parte hartu nahi dutenek, 20 lanegunen epean aurkeztuko dituzte bere proposamenak, eta hauek Udalak aztertuko ditu. Onartutako baremoak aplikatu ondoren, kontratazio proposamena egingo du bere kasuan, eta hau Udal Plenoak onetsiko du.

Lizartzako Gizarte-Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilpen anitzeko gelaren kontzesio Administratiboaren Lehiaketako Baldintza Erregulatzailen Plegua aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **5.- EZKONDU GABEKO BIKOTE EGONKORREN UDAL ERREGISTROAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUDIA**

Gure antolamendu juridiko eta sozialaren funtsezko oinarriak nortasunaren garapenerako askatasuna eta legearen aurrean guztion dugun berdintasuna izanik, behartuta daude botere publiko guztiak hiritarren eta horiek osatzen dituzten taldeen askatasun eta berdintasun horiek benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen beharrezko diren baldintzak sustatzera, haien eragozle liraketeen oztopoak baztertzen dituztelarik.

Edozein gizon-emakumek du eskubidea, bere buruaren jabe legitimo gisako ihardueraz, elkarketa afektibo egonkor baten bidez bizitza-komunitate bat eratzeko, zeinek, seme-alabez osatu, nahiz ez, familia baten sorrera

baitakar eta horri babes soziala, ekonomikoa eta juridikoa eman beharra daukate botere publikoek.

Ezkontza dugu elkartze afektibo egonkor horrek historian zehar hartu izan duen erakunde-forma, baina gaur egun elkarbizitza modu oso desberdinak ditugu, eta bikote ugar dira bere bizitza-komunitate iraunkorra ezkondu gabe eratzea, ezkongu gabe familia sortzea erabakitzen duten edo horretara behartuta duaden bikoteak; ez dago, ordea, horien arteko harremanak giza-kalitate edo kalitate sozial gutxiagokotzat zertan jo, ez eta balio juridiko gutxiagokotzat guraso gisa semealabekiko dituzten betekizunak ere.

Bikote hauek, ezkontzarik gabeko elkarketa osatzen dutenak, eta berttik sortzen diren familiek, ezkontza bidezko elkarketek eta beren familiek jasotzen duten babes sozial, ekonomiko eta juridiko berbera jaso beharko lukete; horrela bermatuko bait da, hain zuzen ere, begirunea eta gorago aipatu diren funtsezko oinarriak, hots, hiritar guztiek duten nortasunaren garapenerako eta berdintasunerako eskubidea.

Konstituzioaren araberrako babes hau, oinarri berberak aintzat harturik, sexu berekoek osatutako elkarketa egonkor eta fektiboeri ere eskaini behar zaie, berezko joera sexualak sexu bereko beste pertsona batekin bizitzera daramatzen pertsona horiek orain arte baztertzer eta kriminalizatzer bultzatu izan duten zentzurik gabeko gaizki-ikusteak gainditu ondoren, gure antolamendu juridikoak egoera hori ezertarako aintzat hartu ez badu ere.

Esandakoarekin bat dator Europako Legebiltzarra eta, ondorioz, sexu-aukerak direla eta, bereizketarik ez egiteko eskatzen du eta sexu berdineko pertsonak osatutako bikoteak ezkontzarekin berdintzeko erregua egiten du (A3-0028/94).

Ezkontzaz kanpoko elkarketei, sexu berekoak nahiz desberdinekoak izan, legeek eta epaileek eman dieten erantzuna, ahula, zalantza betea, osotasunik gabekoa eta zatikakoa izan da eta, askotan, kontraesanez betea.

Egoera honek, hainbat eta hainbat herritarri erabateko babes falta ekarri dio, bai eta injustizia itzelak ere, zibil, administrazio, fiskal, gizarte eta penal mailan.

Konstituzioak eskatzen duen berditnasunaren eta askatasunaren erantzule botere publiko guztiak dira, eta horrenbestez, dagozkien legegaxedapenak ematen ez diren bitartean, eta aplikazio analogikoaren edo gure garaiko errealitate sozialarekin bat datorren interpretazio juridikoaren kaltetan izan gabe (Kode Zibileko 3. eta 4. art.) bidezko dirudi, udal administrazioaren esparru mugatuan bada ere, berdintasuna bultzatu eta ezkontzaz besteko elkarketen bidez, nahiz elkarketa eratzen duten pertsonen sexu berdinekoak edo desberdinekoak izan, eratutako familien babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatuko duen baliabide juridikoa eskaintzea.

Horretarako, Araudi hau onartu dugu:

## **LIZARTZAKO UDALEKO EZKONDU GABEKO BIKOTE EGONKORREN UDAL ERREGISTROAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUDIA**

### **I. ERREGISTROAREN AZALPENA ETA IZAERA**

1. Art.- Lizartzako Udaleko "Ezkondu gabeko bikote egonkorren Udal Erregistroa" k izaera administratiboa du, eta aipatutako arauak eta bere garapenean izango diren gainontzeko xedapenak izango dira araubide. Bertan ezkontzaz besteko bi pertsonaren arteko elkarbizitza-elkarketen eraketak inskribatu ahal izango dira, aipatutako arauetan ezartzen diren baldintzei eta moduari jarraituz.

### **II. ERREGISTROAN SARTZEKO AUKERA DUTEN HERRITARRAK**

2. Art.- Erregistroan inskribatzeko aukera izango dute, ezkontzaz besteko bi pertsonaren arteko elkarbizitza eratu duten bikoteek, baita biak sexu berekoak badira ere.

Ezkontzaz besteko elkartetako kideetako batek gutxienez, Lizartzako Udalerrian erroldatua egon beharko du.

### **III. INSKRIBAPENAREN ONDORIOAK**

3. Art.- Lizartzako Udalak bere aginpideko gaietan onartu dituen edo onartuko dituen izaera administratiboa duten betebeharrak eta eskubide berdinak izango dituzte ezkontza bidezko elkartzeek nahiz "Ezkondu gabeko bikote egonkorren Udal Erregistroa"n inskribatuta dauden ezkontzaz kanpoko elkarbizitzako elkarketak, bai sexu berdinekoak bai desberdinekoak.

### **IV. AGERTZEA ETA INSKRIBATZEKO KONTUTAN HARTU BEHARREKO ZIRKUNSTANTZIAK**

4. Art.- Bikote bakoitzaren lehenengo inskripzioa, bikotea osatzen duten bi kideak Erregistroaren ardura duen udal langilearen aurrean agertuz egin beharko da. Horrela beraien arteko ezkontzaz besteko elkarbizitza-elkarketa aitortzeko.
5. Art.- Ondorengo kasu hauetan ezkontzaz besteko elkarbizitza-elkarketa ez da inskribatuko.
- a) Bietako bat adinez nagusia ez balitz eta ez balitz emantzipatu.
  - b) Bien artean odolkidetasuneko ahaidetasuna balego, edota adopzioz zuzenean ahaide edo odolez bigarren mailako ahaide albotikoak balira.
  - c) Bietako batek ezkontza gaitasun eza aitorturik balu.
  - d) Bietako batek, erregistroko arduradunak erraz somatzeko moduko gaitz psikikorik balu. Kasu honetan gaitasunari buruzko medikuaren txostena aurkez daiteke, hain zuzen ere ezkontzaz besteko elkarbizitza-elkarketa baimentzeko.



6. Art.- Bikote bakoitzaren inskripzioko lehenengo idazpenean, beraien elkarketari buruzko gertaera eta gorabeherak jaso daitezke. Era berean, elkarketa kideen arteko harreman pertsonalak nahiz ondareari buruzkoak arautzen dituzten kontratu eta hitzarmenak ere inskribatu ahal izango dira, hitzez hitzezko transkripzioz.

Aurreko idazatian jasotako edukinak bikotearen geroko agerpenetan inskribatzeko erabili ahal izango dira.

#### **V. ELKARKETAREN AMAIERA EDOTA IRAUNGIPENA**

7. Art.- Elkartzearen amaiera edota iraungipenari dagozkion anotazioak, kideetako baten eskariz egitea nahikoa izango da.

#### **VI. ERREGISTROAREN ERANTZUNKIZUNA**

8. Art.- Erregistroa Udaleko Idazkaritza Nagusiaren menpe egongo da.

#### **VII. ERREGISTROAREN GAUZATZEA: LIBURU NAGUSIA ETA XEHETASUN LIBURUA**

9. Art.- Erregistroa Liburu Nagusi baten bidez gauzatuko da eta aurreko artikuluetan aipatutako inskripzioak jasoko dira bertan. Liburuaren orriak mugikorak izango dira eta bere zenbakia eta zigilua eramango dute. Liburua, zabaltze eta itxierari dagozkion eginbideen bidez hasi eta amaituko da.

10. Art.- Bikote bakoitzaren lehenengo izen emateak oinarrizko inskripzioa izaera izango du, horretaz gain gerora sor daitezkeen bestelako idazpenak liburu nagusian jasoko dira.

11. Art.- Erregistroak ere xehetasun liburu bat izango du eta bertan, abizenen arabeko ordenari jarraiki, bikoteei eragin diezaieketen xehetasunak liburu nagusiko zein orrialdetan jasotzen diren zehaztuko da.

### **VIII. ZIURTAGIRIEN IGORPENA ETA INTIMITATEAREN BABESA**

12. Art.- Erregistroan bere izena ematen duten pertsonen eta ahaideen intimitatea bermatzeko, ez da idazpenen edukiaren publizitaterik egingo. Elkartzearen kide batek, Epaiek edo Justizi Auzitegiaren eskariz izan ezik eta Erregistroko arduradunak luzatutako ziurtagirietan.

13. Art.- Egiten diren inskripzioak eta eskatzen diren ziurtagiriak dohainik izango dira.

### **AZKEN XEDAPENA**

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua dioen moduan, Ordenantza hau indarrean sartuko da, bere testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunetara.

Lizartzako Udaleko Ezkondu Gabeko Bikote Egonkorren Udal Erregistroaren Antolaketa Funtzionamenduari buruzko Araudia, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

### **5.- LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIO ZERBITZUA**

Laneko Arriskuen Prebentzio Legeak, langileak babesteko, laneko arriskuen prebentzio lanak burutu behar direla agintzen du.

Hori dela eta, hainbat aurrekontu eskatu dira, eta hauek aurkeztu dute:

PREVITEK – 200 Euro/hilabeteko, kontratuaren iraupena urte betekoa izango delarik.

OSAIRU – 182,43 Euro/hilabeteko, kontratuaren iraupena urte betekoa izango delarik.

PREVENCILAN – 88,96 Euro/hilabeteko, kontratuaren iraupena urte betekoa izango delarik.

Proposamenak aztertu ondoren, eskeintzarik egokiena ..... dela ikusten da.

Hori dela eta, Laneko Arriskuen Prebentzioa Zerbitzua ..... ri, ... Eurotan adjudikatzea, aho batez onartu da.

## **6.- HIRILURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGAREN ORDENANTZA ARAUTZAILEA**

### **1.- XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1.- Artikulua**

Udal honek, Toki Ogasunak erregulatzen dituen Lurralde Historikoko Foru Arauen eta tributuari dagokion Foru Arauean aurrikusitakoaren arabera Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga ezarri eta exijitzen du, Ordenantza honi jarraiki, portzentaia laukia eta tarifa aplikagarriak dituen Eranskina parte delarik.

#### **2.- Artikulua**

Ordenantza Udal barruti osoan aplikatzen da.

#### **3.- Artikulua**

1.- Zergaren egitate ezargarria da ezarraldian zehar hirilurrek izan duten balio gehikuntza, lur horien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzen denean

edo horien gainean jabaria mugatzen duen edozein ondasun eskubide eratu edo eskualdatzen denean.

2.- Eragin hauetara, hurrengoak izango dute hirilurren kontsiderazioa.

Hiri-lurzorua, urbanizagaia egitaraupeko urbanizagarri edo egitaraurik gabeko urbanizagarrian Hirigintz Iharduketarako Egitaraua onetsiko den unetik: zoladuradun bideak edo espaloien xingolaketa izan eta estolderia, ur-hornidura, energia elektrikoaren hornidura eta argiteria publiko dituzten lurak eta hiri eraikuntzek beteta daudenak.

Nekazal Legerian xedatuakoaren aurka zatikatzen diren lurak eta honetakotzat harturko dira, beti ere, zatikapen horrek nekazal erabilera hutsaltzen duenean, horrengatik berberen izaeraren aldakuntzarik jaso gabe, honako zerga honetarako ez bada.

## **I. MENPEKOTASUN EZA**

### **4. Artikulua**

1.- Nekazal izaerako lurrek izango duten balio gehikuntza ez da zerga honen menpe egongo.

2.- Zerga honen eraginetarako hurrengoak izango dute nekazal izaerako ondasun higiezinaren kontsiderazioa:

Aurreko artikuluko 2. Zenbakian xedatutakoaren arabera hirilurren kontsiderazioa ez dutenek.

## **II. SALBUESPENAK**

### **5. Artikulua**

1.- Zerga hau ordaindu behar dutenak jarraiko pertsona edo Entitateak direnean, balio gehikuntzak salbuetsita daude zerga honetan:

- a) Estatua, Euskal Herriko Autonomi Elkarte, Lurralde Historikoa eta beraien Administrazio Izaerazko Organismo Autonomoak.
- b) Udalerria eta udalergi horren toki entitateak zein udalergia kide deneko toki entitateak eta beraien Administrazio izaerazko Organismo Autonomoak.
- c) Ongintza edo irakaskuntza-ongintza duten entitateak.
- d) Gizarte Segurantzaren eta legerian aurrikusitakoaren bat etorritako Mutualitate eta Montepioen entitate kudeatzaileak.
- e) Nazioarteko Itune edo Hitzarmenetan salbuespena aintzatetsi izan zaien pertsonak edo Entitateak.
- f) Ukitzen dituzten lurri dagokienez, administrazio emakida lehengoragarrien titularrak.
- g) Gurutze Gorria eta beronen berdinezkarri izan eta Lurralde Historikoko araubidez zehaztuko diren entitateak.

2.- Era berean, jarraian adieraziko diren egintzen ondorio diren balio gehikuntzak zerga honetan salbuetsita daude.

- a) Ezkontz sozietatera egindako ekarpenak, ezkontideen artean, ezkontz sozietatera egindako ondasun eta eskubideen ekarpenen ordain, egindako ondasunen, eta dituzten hartzeko komunak, esleipen eta eskualdaketak.

- b) Seme-alaben alde edo ezkontideen artean, ezkontza-baliogabetasun, banantze edo dibortzioaren balizkoei buruzko epaien beterazpenaren ondorioz egin daitezten ondasun higeizinen eskualdaketak.
- c) Edozein zortasun-eskubideren eraketa eta eskualdaketa.

### **III. SUBJEKTU PASIBOAK**

#### **6. Artikulua**

Hurrengoak dira zergaren subjeto pasiboak:

- a) Lurren eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten irabazizko gozameneko ondasun-eskubideak eratu edo eskualdatzean, lurraren eskuratzailerak edo ondasun-eskubidea beronen alde eratu izan edo eskualdaketaren jasotzailerak.
- b) Lurren eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten kostubidezko gozameneko ondasun-eskubideak eratu edo eskualdatzean, lurraren eskualdatzailerak edo ondasun-eskubidearen eratzailerak edo eskualdatzailerak.

### **III. OINARRI EZARGARRIA**

#### **7. Artikulua**

- 1.- Zerga honen oinarri ezargarririk, hirilurren balioak sortzapen-unean ageriko jarri eta hogeituro urtetako gehienezko epean zehar hartutako benetako gehikuntza da.
- 2.- Benetako gehikuntzaren zenbatekoa zehazteko sortzapen-unean lurraren baliaren gainean Eranskinean dagoen eskalaren portzentaia aplikatuko da.
- 3.- Artikulu honetako bigarren zenbakiak aipatzen duen portzentaia zehazteko hurrengo erregelok aplikatuko dira:

- a) Zergaren menpeko eragiketa bakoitzaren balio gehikuntza, aipatu gehikuntza agerian gertatu den urte kopurua barruan hartzen dituen aldirako artikulua honetako 2. zenbakian ezarritako urteko portzentaiaren arabera zehaztuko da.
- b) Sortzapen unean lurak duen balioaren gainean aplikatu beharreko portzentaia, kasu jakin bakoitzari aplikatu ahal zaion urteko portzentaia eta balio gehikuntza agerian jarri izan deneko urte kopuruz biderkatzetako emaitza izango da.
- c) Lehen erregelaren arabera eragiketa jakin bakoitzari aplikagarri zaion urteko portzentaia zehazteko, eta bigarren erregelaren arabera aipatu urteko portzentaia zein urte kopuruz biderkatu behar den zehazteko, balio gehikuntza agerian jarri zeneko aldia osatzen duten urtebeteak bakarrik hartuko dira kontuan, ondorio horietarako aipatu aldiaren urte zatikiak ezin izango direlarik kontutan hartu.

## **8.- Artikulua**

Lurren eskualdaketetan, haien sortzapen uneko balioa, une horretan Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako finkaturik duena izango da.

## **9.- Artikulua**

- 1.- Jabaria mugatzen duten ondasun eskubideak, eratu eta eskualdatzean, Eranskinean bildutako urteko portzentaiei buruzko laudia, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondorioetarako finkatu arauak aplikatuz kalkulaturiko eskubide horien balioa, hari doakiolarik, ordezkatzeko duen 7. artikuluan definituriko balioaren zatiaren gainean aplikatuko da.
- 2.- Eraikin edo lur baten gainean solairu bat edo gehiago eraikitzeako eskubidea edo lurraren azpian, azalerako ondasun eskubiderik sortu gabe, eraikuntza egiteko eskubidea eratu edo eskualdatzean, Eranskinako urteko portzentaian

laukia eskualdaketa-eskrituran finkaturiko proportzionaltasun modulua edo, horren ezean, lurgainean edo lurraren azpian eraikitzeko solairuen azalera edo bolumena eta haiek behin eraikiz gero eraikitako guztizko azalera edo bolumenaren arteko portzentatia ezartzearen ondorioz lortutakoa, ordezkaten duen 7. artikuluan definitu eta hari doakion balioaren zatiaren gainean aplikatuko da.

3.- Beharrezko desjabetzapenak daudenean, bildutako urteko portzentaien laukia lurraren balioari dagokion baliespenaren zatiaren gainean aplikatuko da.

#### **IV. TRIBUTU KUOTA**

##### **10.- Artikulua**

Zerga honen kuota, oinarri ezargarriari Eranskinean adierazten den karga tipo aplikatzearen emaitza izango da.

#### **V. ZERGAREN SORTZAPENA**

##### **11.- Artikulua**

1.- Data hauetan sortaraziko da zerga:

- a) Lurraren jabetza bizien artean edo heriotzaren zioz eskualdatzen denean, kostubidez edo dohan izanik ere, eskualdaketa datan.
- b) Jabaria mugatzen duen edozein ondasun eskubide eratu edo eskualdatzen denean, eraketa edo eskualdaketa gertatzen den datan.

Aurreko zenbakiko eraginetarako hurrengo hau hartuko da eskualdaketa datatzat:



- 1) Bizien arteko egintza edo kontratuaren agiri publikoa ematen denekoa eta, dokumentu pribatuak direnean, horiek errejistro publikoan inskribatzen direnekoa edo duen lanbidearen zioz funtzionari publiko batek ematen dituenekoa.
  - 2) Heriotz ziozko eskualdaketa, sortzailearen heriotza data.
- 2.- Ebazpen irmoaz lurraren eskualdaketa edo beronen gaineko gozameneko ondasun-eskubidearen eraketa edo eskualdaketa sortarazi zuen egintza edo kontratuaren baliogabetze, hutsalketa edo deuseztapena gertatu dela epaibidez edo administrazio bidez adierazi edo aintzatets dadinean, subjektu pasiboak ordaindutako zergaren itzulketa egin diezaioten eskubidea izango du, beti ere egintza edo kontratu horrek irabazpiderik eman ez badio eta itzulketa, ebazpena irmo hartu zenetik bost urtetako epearen barruan galda dezanean, irabazpiderik dagoelakotzat interesatuek Kode Zibilaren 1295. artikulua aipatu elkarrekiko itzulketak burutu behar dituztela bidezkotzen ez denean joko delarik. Egintzak edo kontratuak irabazpiderik sortarazi ez badu ere, hutsalketa edo deuseztapena zergaren sujetu pasiboaren egin-beharrak ez betetzearen zioz adieraziz gero, ez da ezertan ere itzulketarik egongo.
- 3.- Kontratu, alde kontratazileen elkarren arteko adostasunez ondoriorik gabe geratzen bada, ez da ordaindutako zerga itzuliko eta tributua ordaindu beharreko egintza berrizat hartuko da. Elkarrean arteko adostasuntzat adiskidetze egintzako adostasuna eta demandarekiko amoregite hutsa joko dira.
- 4.- Baldintzaren bat tarteko duten egintza edo kontratuetan, berauen kalifikazioa Kode Zibileko preskripzioen arabera egingo da. Etendurazkoa balitz, zerga ez litzateke likidatuko harik eta berau bete arte. Baldintza deuseztapenezkoa balitz, zerga exijitu egingo litzateke, noski, baldintza betetzen denean aurreko ataleko erregelaren arabera itzulketa egitearen erreserban.

## **IX. KUDEAKETA**

## **12.- Artikulua**

Subjektu pasiboek Udal Administrazioaren aurrean aurkeztu beharko dute Zergatik dagokien aitordpena, administrazioak emango duen eredu ofizialaren arabera non tributu zerrendako elementua eta kuota zehazteko beharrezko gainerako elementuak azalduko bait dira, kuotaren ordainketa aitordpena arkezten den ekitnza berean ordaindu beharko da.

## **13.- Artikulua**

Hurrengo epeetan aurkeztu beharko da aitordpena eta horretatik ateratako kuota ordaindu, zergaren sortzapena sortuko den datatik aurrera zenbatuko direlarik:

- a) Bizien arteko egintzetan, epea: 30 lanegunetako izango da.
- b) Heriotzaren ziozko egintzetan, epean sei hilabetetako izango da, subjektu pasiboak horrela eskaturik urtebateko mugaraino luzatu ahal izango delarik.

## **14.- Artikulua**

- 1.- Aitorpenari, nahitanahiez, ezarpena sorteraziko duten egintza edo kontratuak bilduko dituen agiria, behar bezala askietsia, erantsiko zaio.
- 2.- Eskatzen diren salbuespen edo hobariak, halaber, agiriz ziurtatu beharko dira.

## **15.- Artikulua**

Udal Administrazioak errekeritu ahal izango ditu pertsona interesatuak, Zergaren likidazioa burutzeko beharrezko erizten dituen bestelako agiriak aurkeztu ditzaten hogeita hamar egunetako epean, interesatuak eskaturik beste hamabost egunez luza daitekeelarik, epe horien barruan egindako

errekerimenduei erantzuten ez dietenek, dagozkien arau hauste eta tributu zehapenak izango dituzte, esandako agiriak aitortpena egiaztatu eta likideazioa ezartzeko beharrezko diren heinean. Esandako agiri horiek interesatuak bere onurarako bakarrik alegaturiko gorabeherak egiaztatze bitarteko hutsak balira, errekerimenduari ez erantzuteak, alegatu bai baina zuritu gabeko zertzeladak kontutan hartu gabe likidazioa egitea ekarriko du.

## **16.- Artikulua**

12. artikuluan xedatutakoaz at, jarraian adieraziko direnek, Udal Administrazioari jakinarazi egin beharko diote egitate ezargarriaren buruketa, subjektu pasiboen epe berberen barruan:

- a) Honako Ordenantza Fiskal honetako 6. artikulua a) hizkian bildutako kasuetan, beti ere bizien arteko negozio juridikoaren zioz sortarazikoetan, dohaintza emailea edo ondasun-eskubidearen eratzailea edo eskualdatzailea.
- b) Aipatu 6. artikulua b) hizkiko kasuetan, eskuratzailerak edo ondasun-eskubidea bere alde eratu edo eskualdatuta duen pertsona.

## **17.- Artikulua**

Era berean, Notariak egutegiko hiru hilabeteko bakoitzaren lehen hamabostaldiaren barruan, egutegiko aurreko hiru hilabetekoan beraiek baimendutako agiri guztien zerrenda edo indize laburtua igorri behar izango dute nahitaez, bakoitzak bere udalari, haiek, dena den, eskuhartzaileen izan-deiturak, nortasun agiri nazionala eta helbidea eta, agintzak bil ditzatenetan, zerga honen egitate ezargarriaren eginkizuna ageriko jar dezaten egintza edo negozio juridikoak bilduko dituztelarik, azken borondateko egintzen salbuespenarekin. Epe berberaren barruan ere jakinaren gainean egon edo izanpeak legeztatze aurkeztu izan zaizkien egitate, egintza edo negozio juridikoen zerrenda igorri behar izango dute. Atal honetan aurrikusitakoa

Lurralde Historikoko Foru Tributu Arau Orokorrean ezarritako lankidetzazko betebeharrak orokorraren kalterik gabe.

### **18.- Artikulua**

- 1.- Udal Administrazioak aitortu izan ez diren egitate ezargarrien egintzaren jakinaren gainean dagoenean, 13. artikuluan aipatzen diren epeen barruan, interesatuei errekerimendua egingo die aipatu aitorpena egin dezaten, tributu arau haustapenen eta, hala balitz, dagozkien zehapenen kaltetan gabe.
- 2.- Udal Administrazioak aurikusitako errekerimenduak bideratuta eta interesatuek dagokien aitorpena aurkezten ez badute, ofiziozko espedientea izapidetuko da, berak dituen datuekin, dagokion likidazioa eginez eta, hala balegokio, dagozkion sartzen epeak eta errekurtsioen adierazpena azaldurik, tributu arau haustapenen eta, hala balitz, dagozkien zehapenen kaltetan gabe.

### **19.- Artikulua**

Ezin izango da Jabetzaren Erregistroan terrenoen eta gainerako zergapeko ekintzen dokumentua inskribatu, aldezturik Zerga honen ordainketa edota, kasua balitz, kuoten ordainketaren atzerapena ez bada kreditatzen.

### **20.- Artikulua**

Ordenantza honetan erregulatzen den Zerga honen likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagokion orotan, era berean zerga urraketak kalifikatu eta kasu bakoitzari jarri beharreko zehapenak finkatzeko orduan, Foru Zerga Arau Orokorrean aurikusitakoa izango da aplikagarri.

## **X. XEDAPEN GEHIGARRIA**

Aurreko 8.1 artikuluan xedatu eraginetarako eta Ondare Transmisio eta Ekintza Juridiko Dokumentatuei buruzko Zerga onartzen duen Foru Arauak indarrean dirauen bitartean, hurrengo arau hauek bete beharko dira:

- 1.- a) Gozamen denboralaren balioa, ondasunen balioaren proportzioan egingo da, urbeteko epealdiko 100eko 21a, 100eko 70a gainditu gabe.
- b) Biziarteko gozamenetan, balioa ondasunen balio osoaren %70ekoa dela eritziko da gozamenetarako 20 urte baino gutxiago dituzenean, eta hori gutxituz joango da, gehiagoko urte bakoitzeko 100eko 1aren proportzioan, balio osoaren 100eko 10eko mugarekin.
- c) Pertsona juridiko baten alde egindako gozamena, 30 urtetik gorako eperako edo denbora mugatu gabe egongo balitz, eragin fiskaletara, ebazpen baldintzapeko jabetza osoko transmisioztat joko da.
- 2.- Jabetza soiliko eskubidearen balioa, gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren desberdintasunean konputatuko da. Aldi berean denboralak diren biziarteko gozamenetan jabetza soilak baloratzeko, aurreko bat zenbakiko arauetatik balio gutxien ematen diona aplikatuko da.
- 3.- Erabilera eta bizitoki eskubide errealeen balioa ezartzeko, gozamen denbora edo biziartekoen, kasuen arabera, balorazioaroko dagozkion arauak, horiek ezarriak izan zirenak ondasunen balioaren 100eko 75ari aplikatu zaizkio.

## **XI. AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau bere Eranskinarekin batera, bertan adierazten den datan behin betikoz onetsirik izan zen, 2003ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta indarrean segituko aldatzea edo derogatzea erabaki arte.

### **ERANSKINA**

#### **I. PORTZENTAIA LAUKIA**

| <b>ALDIA</b> | <b>URTEKO PORTZENTAIA</b> |
|--------------|---------------------------|
|--------------|---------------------------|

|                             |       |
|-----------------------------|-------|
| a) Urtetik 5 urte bitarteko | % 3,1 |
| b) 10 urte artekoa          | % 2,8 |
| c) 15 urte artekoa          | % 2,7 |
| D) 20 urte artekoa          | % 2,7 |

**II. Erabakiaren arabera indarrean dagoen tarifa:**

Zerga honen kuota, 1001eko 2,5eko mota impositiboa oinarri zergagarriari aplikatuz lortuko da.

**7.- AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA. 30001-2002**

Lizartzako Udal honen Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu transferentziaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko otsaialren 26ko 4/1991 Foru Arauak 29. artikuluan eta Udal Entitateen Aurrekontu Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuak 34. artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiela.

Era berean, Ogasuneko Informazio Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespren proposamena irakurri dira.

Eztabaidaren ondoren bototara jarri eta aho batez, honako hau erabaki da:

**Lehenik.-** Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, Lizartzako Udal honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

**Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)**

| PARTIDA        | IZENA                         | Hasierako<br>Kreditua | Gutxipena        | Amaierako<br>Kreditua |
|----------------|-------------------------------|-----------------------|------------------|-----------------------|
| 420.313.08.01  | Tolosako Gerontologia Zentrua | 4.207,08              | 1.486,53         | 2.720,55              |
| 421.711.01.01  | Tolosaldeko Mendi Nekazaritza | 3.851,95              | 1.821,75         | 2.030,20              |
| 430.451.03.01  | Udal Liburutegia              | 2.200,65              | 1.195,50         | 1.005,15              |
| 430.452.01.01  | Kirolak Batzordea             | 8.414,17              | 3.153,53         | 5.260,64              |
| 601.511.01.01  | Inbertsioak                   | 20.988,99             | 2.900,22         | 18.088,77             |
| 601.511.02.01  | Lezialdeko Pista              | 14.431,50             | 2.141,28         | 12.290,22             |
| <b>GUZTIRA</b> |                               | <b>54.094,34</b>      | <b>12.698,81</b> | <b>41.395,53</b>      |

#### **Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)**

| PARTIDA        | IZENA               | Hasierako<br>Kreditua | Gehikuntza       | Amaierako<br>Kreditua |
|----------------|---------------------|-----------------------|------------------|-----------------------|
| 332.010.01.01  | Maileguen Interesak | 8.715,42              | 808,98           | 9.524,40              |
| 481.469.03.01  | Egunero             | -----                 | 1.752,00         | 1.752,00              |
| 601.422.01.01  | Jangela Eskolarra   | 43.180,18             | 10.137,83        | 53.318,01             |
| <b>GUZTIRA</b> |                     | <b>51.895,60</b>      | <b>12.698,81</b> | <b>64.594,41</b>      |

**Bigarren.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoan Kontuhartzaitza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin isladatzea, Udalbatzarrari egiten duen lehen bilkuran egintza honen berri ematea eragotzi gabe.

#### **8.- TOLOSALDEKO HEZIKETA ETA ENPLEGURAKO ESQUALDE ELKARTEAREN PROPOSAMENA**

Tolosaldeko Heziketa eta Enplegurako Eskualde Elkarteak, hainbat programa aurkeztu ditu, Inem-ek subentzionaturiko enplegu-prestakuntza programak direlarik.

Aurkeztutako programak hauek dira:

ZERBITZUAK TOLOSALDEAN bakoitza 10 pertsonen osturiko bi tailer:

- 1.- “Inguru giroaren babesa eta zaineketa lanak: ibilbide turistikoaren barruan kokatzen diren bideen garbitze-mantenimendu lanak, lorazaintza eta parke naturalen sorrera”.
- 2.- “Giza-osasun laguntzailea zerbitzu gerontologikoetan”

Tolosaldeko Heziketa eta Enplegurako Eskualde Elkarteak, programa hoietan parte hartu nahi izanez gero, Udalaren atxikimendua eskatzen du.

Programak duten helburuak, Lizartzako Udalarentzat oso interesgarriak direnez, proiektuari Udalaren atxikimendua agertzea, aho batez onartu da.

## **9.- ARANZADI ZIENTZI ELKARTEAREN PROPOSAMENA**

Aranzadi Zientzi Elkarteak, “Tolosaldea: Historia eta Kultur Ondarea” ekimena dela eta, 2002 urte bitarte eginiko lanen aurkezpena egin du, eta era berean, Udala eta Erakundearen arteko elkarlana luzatzeko proposamena luzatu dute.

Nahiz eta aurretik egin zen proposamenean, lana, hiru urtetan amaituko zela esan, uste baino datu gehiago bilatu dira eta, datutegia borobildu beharra ikusten da.

Horretarako, lan talde egonkor eta zabalago bat bermatu behar denez, hainbat erakundeetatik laguntzak lortu dira, hau da: KUTXA, FORU ALDUNDIA, EUSKO JAURLARITZA e.a; horren arabera, beste hiru urtetako lan-epea irekitzea proposatzen dute.

Gaia aztertuz gero, ikusten da, oraindaino eginiko lana erdizka geldituko litzatekela, programa horretan jarraitzen ez bada.



Guzti hori kontutan hartuaz, erabaki da: Tolosaldea: Historia eta Kultur Ondarearen azterketarekin aurrera jarraitzea, baldintza hauekin:

- 1.- Udalak, aurreko urteetako aurrekontu berdinarekin parte hartuko du.
- 2.- 2002 urte bitarte, Lizartzari buruz eginiko lanak aurkeztu behar dira, txosten baten bitartez.
- 3.- Kostuaren ordainketa, honela burutuko da:
  - 1.go urtea, 1803,04 euro.
  - 2 eta 3 urtea, lana amaiturik aurkeztean.

#### **10.- ARRATOI KONTROLA EGITEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA**

2002ko Abenduaren 31an, Udalak, Irati Enpresarekin, Arratoi Suntsiketarako sinatua duen kontratua amaitzen da.

Lan hori burutzeko beste proposamen bat ere aurkeztua izan denez, eta biak aztertu ondoren, zera erabaki da:

Irati Enpresa ezagutzen denez, eta berarekin inolako arazorik izan ez denez, berriro, Enpresa berdinarekin, Arratoi Suntsiketarako kontratua sinatzea.

#### **11.- GARZON EPAILEAREN AUTOARI BURUZ MOZIOA**

Nazio Batuen Erakundeak onartutako Eskubide Zibil eta Politikoen Itunaren 1. artikuluan agertzen da Autodeterminazio Eskubidea. Hain maila gorena duen eskubidea izan arren, bere aurkako adierazpen eta eraso ugari jasan behar izan dugu Euskal Herrian. Urrunago joan gabe, Urriaren 16an Madrileko Audentzia Nazionaleko Instrukzioko 5. zenbakiko Epaitegi Zentraleko Garzon epaileak, 35/2002 sumarioaren barruan barruan, kaleratutako auto

berria hortxe daukagu. Epaille honek, -Espainiako Gobernuaren eta Espainiako hainbat komunikabide eta estamentu politiko, juridiko, sozial eta militarren babesarekin- traiektoria luzea du Euskal Herriaren eta euskal hiritarren aurkako ebazpenak ematen eta inolako oinarri juridikorik ez duten autoak ateratzen.

Oraingo honetan, autoak duen intentzionalitate politiko nabariaz gain, Euskal Herriaren errealtate sozialari buruzko interpretazio zentzugabeak egiten ditu, nolabaiteko obsesio baten insla izan daitezkeenak. Honela, besteak beste, legean oinarriturik egiten diren “jaiotzen berrien erregistro aldaketak” hauteskunde eroldaren manipulaziotzat jotzen du; nazioarteko zuzenbideak definitzen eta arautzen duen autodeterminazio eskubideari buruzko burutazio eta samakizun izugarriak planteatzen ditu, berez eskubidea dena delitu bihurtu arte; Batasuna erakunde politikoaren lan ildoari buruzko interpretazio subjektibo eta bitxiak egiten ditu; kargu publikoen balizko ordezkapenei buruz mintzatzen da; hauteskundeetako emaitzak nazien garaiko Almenaian gertatutkoaz parekatzen ditu, ....

Finean, Garzonek bere marka guztiak hautsi egin ditu eta, auto berri honekin, Espainiako justizia sistemaren benetako aurpegia erakusten digu: Gobernuak dituen beharrizan politikoaren menpekora eta interes politikoaren arabera.

Oraingoa, ordea, ez da epaille honen jokaera kusionatua izaten den lehendabiziko aldia. Izan ere, begi bistakoa da epaille honek hartzen dituen erabaki gehienek duten oinarri eta fundamentu juridiko falta, bai eta Estatuko Gobernuak duen interes politikoekiko erabateko atxikimendua. Gasteizko Gobernuak behin baino gehiagotan adierazi du epaille honek prebrikazio-delitua egin duela bere ebazpenekin eta beraren aurkako kereila aurkeztu du Espainiako Epaitegi Gorenaren aurrean; kereila honetan, besteak beste, segurtasun-falta juridikoa sortaraztea leporatzen dio epaille honi, bai eta oinarritzko eskubide batzuen urraketarako neurriak hartzea.

Hau guztia dela eta, honako erabakiak hartzea proposatzen da:

- 1.- Udal honek Nazio Batuen Erakundeak onartutako Eskubide Zibil eta politikoen Itunaren 1. artikuluan agertzen den Autodeterminazio Eskubidea berretsi eta bere aldeko defentsa irmoa egingo duela aldarrikatzen du.
- 2.- Udal honek erabateko desadostasuna adierazten du, Garzon Epailearen 2002ko urriaren 16ko autoaren aurrean. Epaileak Euskal Herriko errealitateaz egiten duen kontaketa zeharo faltsua da eta euskal herritarrentzako iraingarria. Gainera, epailearen jarrerak eta autoaren edukiak Euskal Herriko bizitza politikoa onartu ezinezko hamaikagarren esku-hartzea suposatzen dute.
- 3.- Udal honek, Garzonen eskaerei uko egitea erabakitzen du, auto honen bitartez eskatzen diren datuak ez bideratuz; batetik, autoak inolako oinarri juridikorik ez duelako, eta bestetik, lehendabizi akusazioak egiten direlako eta, ondoren, akusazioak mantentzeko frogak eskatzen direlako. Akusazioa alde aurretik egiten da, frogetan eta irizpide objektiboetan oinarritu gabe.
- 4.- Udal honek, Garzonen auto berri honetan ematen den Autodeterminazio Eskubidearen kriminalizazio saioa salatu egiten du. Honen helburua, nazioarteko zuzenbideak jasotzen duen funtsezko eskubide honen balizko gauzapenerako oztopoak jartzea da, epaile bati ez dagozkion funtzio eta balorazio politikoetan sartuz.
- 5.- Udal honetatik, berretsi egiten dugu proiektu politiko guztiak zilegiak direla eta, beraz, bere defentsa eta gauzapenerako aukera berdinak izan behar dituztela.

Garzon Epailearen Autoari buruzko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **12.- OSAKIDETZARI BURUZ MOZIOA**

Osakidetzan 1700 mediku eta erizain berri sartzera doaz Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herrietan lanean aritzeko. Osakidetzan sartzeko egiten ari diren

azterketetan, gaztelania derrigorrez jakitea denei eskatzen zaie eta euskara, berriz, bakar bati ere ez.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak bere 5.2 atalean honela dio “Euskal herritarrei honako funtsezko hizkuntza eskubide hauek aitortzen zaizkie: a) Administrazioarekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz ... izateko eskubidea”.

Mediku eta erizain berri horiek bi hizkuntza ofizialak ez badakizkitez Osakidetza ezin ditu bere zerbitzuak euskaraz bideratu eta herritar euskaldunen hizkuntza eskubideak urratuko ditu. Aldiz, mediku eta erizain euskaldunak Osakidetzan sartzen badira, herritar guztien eskubideak babesten dira, funtzionario horiek sartzen diren une beretik erretiroa hartzen duten arte. Bestalde, denbora eta kostuak aurreratzea suposatzen du, mediku eta erizain horiek euskaraz prestatzea eta baita beharrezkoa.

Euskaldunon euskaraz bizitzeko eskubidea dugu. Beraz, euskaraz normaltasunez erabiltzeko aukera izan behar dugu arlo guztietan, Euskal Herri osoan. Horregatik, Administrazioak izan behar du eskubide hori bermatzeko ardura. Baina, Osakidetzaren kasu honetan betetzen ez denez, azpian sinatzen dugun Tolosaldeko herritar, elkarte eta euskalgintzako erakundeak gure desadostasuna adierazi nahi du eta segidako eskabide hau bideratu behar dugula uste dugu hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskararen normalkuntza osoa bultzatzeko.

- 1.- Tolosaldeko Lizartzako udal honetan, udal administrazioiko lanpostu batetan sartzeko edota bertan lanean aritzeko langile berri orok derrigorrez, bi hizkuntza ofizialak jakin behar ditu. Hau da, udal administrazioiko langile berri guztiek euskaldunak izan behar dute.
- 2.- Lehenengo puntuaren irizpidea, Euskal Herriko administrazio publiko guztiei eta bere menpeko erakunde guztiei bete dezaten eskatzea.

3.- Lehenengo puntuaren irizpidea, Osakidetzaren administrazioari bete dezan bereziki eskatzea. Udal Euskaldunen Mankomunitateak egindako eskabideak aintzat har dezan eskatzea, Tolosaldera bidal ez dezan euskaraz ez dakien sendagile edo erizainik.

Osakidetzari buruzko mozioa aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

### **13.- SAKABANAKETARI BURUZ SENIDEAK ELKARTEAK** **AURKEZTUTAKO MOZIOA**

Gaur egun Euskal Herrian Espainia eta Frantziako Gobernuek diseinatutako espetxe-politikaren ondorioetako bat dugu, presoek bizi duten sakabanaketa egoera. Sakabanaketa horren eraginez presoak behartuta daude jaioteritik ehunka kilometrora dauden espetxeetan zigorra betetzera eta aldi berean eskubide guztiak; osasunerako eskubidea, defentsarako eskubidea edo eskubide juridikoak, adierazpen eskubideak, komunikazio eskubideak eta orohar giza eskubide guztiak urratuak dituzte. Honek eragin zuzena du preso zein hauen familiartekoengan, astero astero kilometro asko egin behar baitituzte guzti honek suposatzen duenarekin eta bidai hauek dakarten arrisku guztiekin:

Espetxe-politikak eta bereziki sakabanaketak, espetxeraturik dauden pertsonen oinarrizko eskubideak bortxatzen dituzten jokabide irregularrak eta arbitrarioak ahalbideratzen ditu.

Aipatutako politika hori garatzeak, bere burua zuzenbide estatutzat jotzen duen estatu batean onartezinezko kalteak sortarazten ditu, ehunka gizon zein emakume egoera larrian, etxetik urrun, isolatuak, tratu txarrak eta irainak pairatzen, intimitaterik gabe eta oinarrizkoena izateko aukerarik gabe baitaude.

Giza eskubideak beti eta baldintzarik gabe bete behar dira, baita presoek eskubideak ere, giza eskubide diren heinean. Bortizkeria erabiltzea guztiz

bidegabe den bezalaxe, ez dago espetxeratuen eskubideak zapaltzeko arrazoi politiko balizkorik.

Presoak politikoki erabiltzea ez da bidezkoa. Espainiako eta Frantziako gobernuek betebeharrak etiko garbia daukate presoek zigorra norberaren familiaren eta herriaren inguruko espetxetan betetzeko duten eskubidea errespetatzeko.

Espainiako eta Frantziako gobernuek aintzat hartu behar dute presoek eskubideen alde euskal gizarteak Eusko Legebiltzarraren bidez. Batzar nagusien bidez, Udalen bidez eta era guztietako elkarteen bidez egin duen aldarrikapena.

Presoen familiek ere, gizalegezkoa ez den egoera hori sufritzen dute, eta preso dauden senitartekoekin minutu batzuk egon ahal izateko baldintza luze eta arriskutsuak egitera behartuta daude, eta bidai horietan hildakoak ere izan dira”.

Hori guztia kontua izanik, argi dago orain arte egin ditugu nsalaketa eta eskaerak ez dutela inolako emaitzarik eman eta bi estatuek muzin egin eta egiten digutela. Horren aurrean, eta presoek familiartekoekin pairatzen duten egoeraren aurrean, Lizartzako Udalak honako hau proposatzen du:

- 1.- Udala honek, preso eta beren familiarren oinarrizko eskubideen baldintzarik gabeko errespetoaren bermea lantzea.
- 2.- Udaletxe honek berea egin dezan preso eta beren familiarrek egindako eskaera, legearen esanetara, EUSKAL PRESO POLITIKOAK EUSKAL HERRIRA ekartzea.
- 3.- Udaletxe honek, baldintzak betetzen dituzten preso guztien Baldintzapeko Askatasunaren aplikazioa esijitu dezan, hau da: kartzela zigorraren 3/4ak bete dituztenak eta gaixotasun larriak sufritzen dituzten guztiak.

4.- Udaletxe honek goian aipaturiko akordioak burutu daitezten konpromezua har dezan horrelako ekimenak proposatzen ditugu:

- Udala bere herriko presoek egoeraz informatuko da.
- Udalak bertako presoek egoeraren berri emango dio herriari.
- Udalak herrian sortzen den herriko presoek talde edo plataformarekin maiztasun konkretu batekin bilerak mantenduko ditu. Bilera hauek elkarlana eta ekimen desberdinak batera aurrera ateratzeko helburua izango dute.
- Udalak bere herriko presoek eskubideak bermatu daitezten ahalik eta jertio gehien egingo ditu instituzio ezberdinen aurrean: bere herrian egoteko eskubidea, bizi baldintza egokiak, informazio eskubidea, giza eskubideak ..
- Gutunak bidaltzeaz gain udalak dagokion instituzio, erakunde zein pertsoneri, telefono deiak, bilerak eta ahalik eta jertio zuzeneak eta eraginkorrenak burutuko ditu:
  - Kartzela bakoitzeko zuzendariari.
  - Dagokion zaintzako epaileari.
  - “Instituciones Penitenciarias”eko zuzendariari.
  - Barne zein justizia ministeritzi.
- Egindako jertio guztietaz informatuko dio presoari, gutunen bitartez adibidez.

5.- Udalak “Adierazpen Instituzionalak” eratuko ditu: Orokorrak edota gaiez gai, Udalbatzak hartzen dituen akordioak plazaratuz. Euskal Presoek herriartzea esijitzen, Dispertsioak senideekiko suposatzen duen zigor ekonomikoa zein

arriskua, azken finean zigor gehitua, salatuz eta abar... Eta herriari jakinaziko zaizkio.

6.- Presoak, hiritar edo herritar bat gehiago denez, halako trataera jasoko du.

- Udalak herriko informazioa helaraziko dio.
- Hainbat kasuetan herri partaidetza eskatzen denean, presoak ere partaide bilakatu, bere proposamenak eta iradokizunak eskatuaz.

7.- Udalak dispertsioa senideen aurkako zigor gehigarri bat dela salatzeaz gain, sakabanaketarengatik ordaindu beharreko isun ekonomikoaren aurrean dirulaguntzak emango ditu, urteroko aurrekontuetan jasoko dituelarik. Jakinik, sakabanaketa legearen aurkako praktika bat dela, eta senideok errugabe izanik bidaietan dirutzan handia ordaindu behar dutela, dirulaguntza hauek ez dira emango familiek duten diru sarreren arabera. Senidearen egoera ekonomikoa dena delakoa izanik dirulaguntza hauek jasotzeko aukera izango du:

Odoluzte ekonomiko honi aurre egiteko, aurkezten ditugun datuak kontutan hartuta Udaletxe honi zera eskatzen diogu:

- Sakabanaketaren eraginez Euskal Herritik urrun preso dauden politikoak Lizartzatar guztien familiartekoei bidaiak egiteko dirulaguntzak ematea, familiartekoek ala eskatzen badute.
- Dirulaguntza, Lizartzako preso politiko bakoitzeko, 120 euro/hilekoa emango da.
- Sakabanaketaren eraginez, txosten honetan jasotzen ez den egoera berezi bat emango balitz: osasun asistentziak dakartzan arazo eta gastuak, bisak astean zehar egin beharra eta ondorioz lana galtzea, trasladoetan kartzela batetik bestera ibili beharra, asistentzia juridikoan arazorik balego, estatutik kanpora kartzelaratua izan, konfinatua izan, epaitua izan edo eta antzeko



ezohizko beste egoera bat emango balitz, momentuan momentuko erabakiak hartuko dira kasuz kasu aztertu ondoren.

8.- Udal Batza honek hartutako erabakiak Gasteizko Parlamentuko Giza Eskubideen Batzordera, komunikabideetara eta familiarrengan bidal ditzan eta aipatutako batzorde horri, akordioak bete daitezlea eska diezaion.

Sakabanaketari buruz Senideak Elkarteak aurkeztutako mozioa, aho batez onartu da.

#### **14.- ALKATETZAREN DEKRETUAK**

##### **FRANCISCO OLAETXEA KARRERA**

Francisco Olaetxea Karrera Jaunak, Lizartzako Kale Nagusia, 17 – 2.a ezkeran helbideratuak eta NAN zenbakia 72416797 duenak, 2002ko urriaren 14an eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion udal baimena ematea eskatzen du:

“RUSTICA: LOTE UNICO formado por los siguientes terrenos, pertenecidos que fueron de la casería Ubereta-Goyena, en término municipal de Lizarza: a) Porción del terreno sembradío herbal llamado ETXEBURUA, que linda: Norte, Ermita Nuestra Señora del Sagrario; Sur, terrenos de Ubereta-bitarte; Este, camino carretil, y Oeste, terreno de Juan Olaechea. Tiene quince áreas. b) El terreno herbal llamado IGAREGUI, confinante por Norte, con terrenos de las caserías Echeaundia y Barreneceha; por Este, con los de Echeaundia; por Sur, con el de Errementari; y por Oeste, con el de Barrenechea; contiene cino áreas y setenta y siete centiáreas”.

Lote horretatik, ETXEBURUA izeneko terrenoaren bereizketa egin eta bere semeak diren, Aitor eta Ander Olaetxea Goikoetxea Jaunei emateko.

Aitor eta Ander Olaetxea Goikoetxea Jaunek, bere aitak ematen dieten terreno hau, beraiek, Castor Olaetxea Garaikoetxea Jaunari erositako, 1

Poligonoa, 347 a) zatia, "Aldabi izeneko lurrari lotuko diote, biek, finka banaezina osatuko dutelarik.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinen Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da.

#### CASTOR OLAETXEA GARAIKOETXEA

Castor Olaetxea Garaikoetxea jaunak, Maikinenea z/g baserrian helbideratuak eta NAN zenbakia 15.218.191 B duenak, 2002ko urriaren 14an eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen du, banaketa eta bereizketa egiteko:

"El robledal llamado Aldabi, confinante por Norte con pertenecidos de Jose Antonio Garro y Francisco Ignacio Olaechea, por Sur con los de Jose Antonio Minteguiaga y Jose Luis Aranzabe, por Oeste con los de Jose Antonio Ecenarro, y por Este con los de Jose Luis Aranzabe. Contiene ciento cuatro áreas, ochenta y ocho centiáreas."

1.- Lizartzako lur sail hau, bi pusketan banantzea, honela geldituko liratekelarik:

1. Poligonoa, 347 Partzea a) zatia

“El robledal llamado Aldabi, confinante con Norte con pertenecidos de Jose Antonio Garro y Francisco Ignacio Olaetxea, por Sur con parcela segregada del mismo robledal “Aldabi”, por Oeste con los de Jose Antonio Ecenarro y por Este con los de Jose Luis Aranzabe. Contiene ocho mil quinientos metros cuadrados”.

1. Poligonoa, 347 Partzela b) zatia

“El robledal llamado Aldabi, confinante con Norte con parcela segregada del mismo robledal “Aldabi”, por Sur con Jose Antonio Mintegiaga y Jose Luis Aranzabe, por Oeste con los de Jose Antonio Ecenarro y por Este con los de Jose Luis Aranzabe. Contiene mil novecientos ochenta y ocho metros cuadrados”.

2.- Bi lur sail hoiien segregaziorako baimena, ondorengo pertsona hauei saldu ahal izateko:

1. Poligonoa, 347 partzela a) zatia: Aitor eta Ander Olaetxea Goikoetxea jaunei saltzeko.

Hauek, bere aita den, Francisco Olaetxea Karrera Jaunak emandako, “Etxeburua” izeneko lurrari lotuko diote, biekin, finka banaezina osatuko dutelarik.

2. Poligonoa, 347 partzela b) zatia: Francisco Olaetxea Karrera Jaunari saltzeko.

Honek, bere jabetzako beste lurrekin lotuko du lur sail hori.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinen Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu

Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da.

#### ALKATETZAREN ORDEZKAPENA

TJOL.ko 21.3 artikulua dioenaren arabera, Alkatetza honek, hainbat eskumen eskuordetzeko ahalmena du.

Lan arrazoiak direla eta, Alkatearen eskumenak eskuordetu behar dira.

Horren arabera, eta TJOL.ko 21.3 eta AIAko 43, 44, 120 eta 12 artikulua ikusirik, ERABAKI DUT:

- 1.- Alkate Ordea den, Ana Ederra Irurzun Andreari, nire eskumenean dauden ahalmen guztiak eskuordetzea.
- 2.- Aipatzen den eskuordetza legeztatzeke, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da, eta ospatzen den hurrengo Batzarrari jakineraziko zaio.
- 3.- Alkate Ordea den, Ana Ederra Irurzun Andrea, behartuta gelditzen da, Alkatea itzultzen denean, burutu dituen gestio eta erabaki guztien jakinerazpena egitea, AIA.ko 115 artikulua dioena beteaz.

Ebazpen honetan aurrikusten ez dena, TJOL eta AIA Legeek diotenaren arabera jokatu da.

ETXEZ ETXEKO LANGILE LANPOSTUAREN HORNIKETARI  
BERRAZTERTZE HELEGITEA

**GAIA:** Miren Nekane ZUBELDIA ETXEBERRIA andereak, Lizartzako Udalak lanaldi partzialeko Etxez Etxeko langile lanpostua hornitu ahal izateko egindako deialdiaren aurka, aurkezturiko Berraztertze Helegitea.

**AURREKARIAK:**

**IKUSIZ.-** Miren Nekane Zubeldia Etxeberria andereak, 2002ko azaroaren 5ean, Udalean aurkezturiko idatzia, non Lizartzako Udalak behin behineko lanaldiaren bidez, Etxez Etxeko langile lanpostua hornitu ahal izateko eginiko deialdiaren aurka, berraztertze helegitea tartekatzen duen, dialdi horretan onartutako oinarriak baliogabetu eta bertan bera uzteko, akatsak zuzenduz, deialdi eta oinarri berriak egiteko eskatuz.

**GERTAKARIAK:**

**1.-** Errekurtso idatziaren arabera, Lizartzako Udalak eginiko deialdiak, ez ditu betetzen Legediak hautaketa prozedurako ezartzen dituen printzipio eta baldintzak, eta ondorioz, legediaren aurkakoa suertatzen da.

Bere husteraz, deialdiko oinarriei dagokionean, badira deialdia eta oinarriak baliogabetzen dituzten zenbait akats, bai euskara eskakizun aldetik, bai eta azterketa teoriko-praktikoa eta elkarrizketari dagokionean.

Bide batez, errekurtsogilearen husteraz, akats hauek, Euskal Funtzio Publikoaren 25. artikulua eta Toki Erregimenaren Oinarri Legearen 91.ean eskatutako merezimendu, gaitasun eta agiritasun printzipioak urratzen dituzte.

**2.-** Deialdiaren akatsen azterketa burutu aurretik, beharrezkoa da deialdiaren benetako xedea zehaztea.

Konkretuki eta oinarrien arabera, Udal honetako lan edo zerbitzu jakineko eta lanaldi partzialeko Etxez Etxeko Laguntzaile lanpostua hornitzea da aipatutako xedea. Kontuan eduki behar da, postu hau ez dagoela Lizartzako lanpostuen zerrenden sartua, eta gainera baldintzak betetzen dituzten izengaiekin lan-poltsa bat osatuko dela.

Beraz, eta ikusirik lanpostu honek eramango duen kontratu mota, behin behinekoa, lan edo zerbitzu zehatz bat betetzeko izango dela, eta hau amaitzean lan erlazioa eten egingo dela, Funtzio Publikoko 25. artikulua ez litzateke aplikagarria kasu honetan, 33.a baizik.

Hau da Udalak deialdia zuzenean burutu nahi baldin ba du, behin behinekoa denez, ez litzateke legezko inolako arazorik egon behar. Hau da, behin behineko funtzionarioek zein laborek kontratatu ahal izateko, deialdi arina edo azkarra egin bait daiteke (6/1989 uztailaren 6ko Euskal Erkidegoko Herri Langileen edo Funtzio Publikoaren legearen 33. artikulua arabera – 144 E.H.A.A.- besteak beste). Ba dago, hori osatuz, 1986ko otsailaren 28ko Estatu Agindu bat (69 zenbakiko E.A.O.)

- 3.- Udal honen ustetan, egin den deialdiarekin, agiritasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak, erabateko bermea dute.

Kontutan eduki behar da, aipatutako 33. artikulua, eskatzen duen arintasuna ez zela emango errekurtsogileek planteiatutako baldintzak beteko balira, eta argi dago lanpostuaren izaerak, lehen bait lehen betetzea eskatzen duela.

#### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK:**

- 1.- 30/1992 Legeko 116 eta 117. artikulua, Administrazio Publikoen Araubide Juridiko eta Administrazioaren Prozedura Arruntari buruzko Legea (E.A.O. 285. zenbakia).
- 2.- Toki Erregimenaren Oinarri Legearen 84.3 artikulua.

## **ERABAKIA:**

**Lehenengoa.-** Miren Nekane Zubeldia Etxeberria andereak 2002ko azaroaren 5ean aurkeztutako birjarpenezko errekursoaren onartezintasuna adierazi, eta hautaketa deialdiarekin aurrera jarraituko dela jakinerazi.

**Bigarrena.-** Interesdunari ondorengoa jakinaraztea: ebazpen honen aurka, administrazio-auzi gaietako errekurtoa aurkez dezakela, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazio-Auzi Gaietako Aretoan hain zuzen. Ebazpena jakinarazi, eta bi hilabeteko epea izango du errekurtoa aurkezteko.

## MARIA LUIS ARRATE LULUAGA, PABLO MINTEGI ARRATE ETA JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE

Maria Luisa Arrate Luluaga, NAN 15.217.954 G, Pablo Mintegi Arrate, NAN 72.424.482 N eta Josea Antonio Mintegi Arrate, NAN 15.915.139 J, Jaun/Andreak, Lizartzako Ostaturberri Etxean helbideratuak, 2002ko Azaroaren 13an eskaria aurkeztu dute, horren bidez, aipatu eskatzaileek, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen dute, bereizketa egin eta Jose Antonio Mintegi Arrate Jaunari emateko:

“El terreno llamado Magdalena-buru, que linda: Norte y Este, con terreno de la casa Iribarren; por Sur, con terreno concejil e Ipintoki de la casa Venturanea y por Poniente con camino público, mide treinta y seis áreas y ochenta y siete centiáreas”.

Jose Antonio Mintegi Arrate Jaunak, beraren eta emaztea den: Maria Concepción Ceberio Arruabarrena, Jose M<sup>a</sup> Zeberio Arruabarrena eta emaztea den, Maria Inmaculada Alonso Buldain, Jaun/Andreen jabetzakoa den, eta jarraian deskribatzen den lurrarekin lotu beharko du, biekin, banaezinezko finka bat osatuko delarik:

“El terreno sembradío, ribazo, herbal y zarzal llamado Artetxe-Aldea, de ochenta y nueve áreas y treinta y ocho centiáreas, que linda: por Este, con pertenecidos de la casería Bengoechea; por Sur, con la carretera general; por Oeste, con camino carretil y pertenecidos de la casería Arostegui y por Norte con camino carretil; y, además por Norte, Oeste y Sur, con parcela segregada y vendida al Ayuntamiento”.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinaren Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da.

#### ETXEZ ETXEKO LANGILE LANPOSTUAREN IZENDAPENA

IKUSIRIK.- 2002ko Azaroaren 13an, OTEIC TALDEAK, Lizartzako Udaletxean eginiko, Etxez Etxeko Langile lanpostua hornitzeko azterketen emaitzak luzatu dituela:

| <b>ANALIZATUTAKO FAKTOREAK</b>              | <b>%</b> | <b>1.<br/>SOROA, A.</b> | <b>2.<br/>ZUBELDIA, N.</b> |
|---|----------|-------------------------|----------------------------|
| <b>1.- GAITASUN ETA PERTSONAL AZTERKETA</b> |          |                         |                            |
| 1.1. Teoriko Praktiko Gaia                  | 30       | 3 9,00                  | 9 27,00                    |



|   |            |     |              |     |              |
|---|------------|-----|--------------|-----|--------------|
| 1.2. Bokaziozko Test                          | 35         | 9   | 31,50        | 5,5 | 19,25        |
| 1.3. Elkarrizketa                             | 35         | 8,5 | 29,75        | 6   | 21,00        |
| Sub-Totala 1.                                 | <b>100</b> |     | <b>70,25</b> |     | <b>67,25</b> |
| <b>2.- MERITUEN BALORAZIOA</b>                |            |     |              |     |              |
| 2.1. Administrazioan postuaren esperientzia   |            |     | 4,50         |     | 2,50         |
| 2.2. Enpresa pribatuan postuaren esperientzia |            |     | 0,00         |     | 0,00         |
| 2.3. Titulazio Ofiziala                       |            |     | 0,00         |     | 0,00         |
| 2.4. Osagarritzko Formazioa                   |            |     | 0,00         |     | 0,15         |
| Sub-Totala 2.                                 |            |     | <b>4,50</b>  |     | <b>2,65</b>  |
| <b>GUZTIRA (1+2)</b>                          |            |     | <b>74,75</b> |     | <b>69,90</b> |

KONTUTAN HARTURIK.- Aipatzen diren emaitzen arabera, AGUSTINA SOROA IBARLUZEA Andrea izan dela, azterketan emaitza handiena atera duena.

Horren arabera, ERABAKI DUT:

- 1.- Egun indarrean dauden legeriak damazkion eskurantzak erabiliz eta apirilaren 18ko 781/1986 EDLren 136. artikulua, xedatutakoaren arabera, Lizartzako Udaleko, lanaldi partzialeko Etxez Etxeko Langile lanpostua betetzeko, AGUSTINA SOROA IBARLUZEA Andrea izendatzea.
- 2.- Etxez Etxeko Langile lanpostuaren ordezkapenak burutzeko, MIREN NEKANE ZUBELDIA ETXEBERRIA Anderearekin, lan poltsa osatzea.
- 3.- Ebazpen honen berri interesatuei jakinaraztea.

Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsua jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Baita ere, administrazio-auzi gaietako errekurtsua aurkez daiteke, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazio-Auzi Gaietako Aretoan hain zuzen. Ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, bi hilabeteko epea izango duzu errekurtsua aurkezteko.

### AINENE ARTETXE

Ainene Artetxe baserriko A bizitzan etxebizitza egokitzeko lanak egiteko baimena

### M<sup>a</sup> JOSE AGIRREZABALA

Tetxoko terrazako barandila eta honen azpiko pareta pintatu eta ur erretena handiago batez ordezkatzeko baimena.

Etxeko Leihoak aldatu, etxeko banaketa hormak aldatu eta etxe ondoko txabolako teilatua konpontzeko baimena.

### TELEFONICA

Telefonica-ko Zentral inguruko hodiak aldatzeko baimena eman da, baldintza hauekin:

- Irekitzen den guztia, berriz ere behar bezala utziko da, orain duen akabera berdinarekin eta urratutako guztia behar bezala berdinduaz.
- Errepidearen parteren bat ikuitu behar balitz, Aldundiko baimena eskuratu beharko da.
- Obratako eremua behar bezala seinalizatuko da eta lanak langaz behar bezala babestuko dira.

### AGUA DE INSALUS S.A.

Agua de Insalus S.A.k eskatutako Salbuespen Egiaztagiria EZ LUZATZEA, arrazoi haunegatik:

- Obra guztiek, nahiz xumeak nahiz nagusiak, Udalaren baimena behar dute.
- Fatxadaren antolakuntzan, eriakinaren egituran edo instalakuntza nagusietan eragin nagusirik ez duten obrak, Obra Xumeak bezala kontsideratzen dira eta baimena, lizentzia rodaindu gabe ematen zaie.
- Kasu honetan, egindako obrak xumeak kontsidera daitezke ziurrenik, baina kontsiderazio hori Udalak erabaki behar dut baimena eskarian ematen den informazioaren arabera eta hau nahiko ez balitz, bertara ikustaldia eginez.

Guzti horren arabera, Baimen eskaria aurkeztu beharko da baimena emateko.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamart'erdiak direnean.